

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **1165/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko azaroaren 19koa, abeltzaintza-sektoreko eta haragi-ekoizpenaren inguruko estatistikei buruzkoa, eta 93/23/EEE, 93/24/EEE eta 93/25/EEE zuzentarauak indargabetzekoak.**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

(EE/Euratom Tratatuaren aplikazioan erabakitako egintzak, derrigorrez argitaratu beharrekoak)

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da:
«*REGLAMENTO (CE) N° 1165/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 19 de noviembre de 2008, relativo a las estadísticas ganaderas y de producción de carne y por el que se derogan las Directivas 93/23/CEE, 93/24/CEE y 93/25/CEE*» (*Diario Oficial de la Unión Europea, L 321 de 2008/12/01ekoa*)

1165/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, 321, 2008/12/01ekoa)

ERREGELAMENDUAK

**1165/2008/EE ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA
2008ko azaroaren 19koa, abeltzaintza-sektoreko eta haragi-ekoizpenaren inguruko estatistikei buruzkoa, eta 93/23/EEE,
93/24/EEE eta 93/25/EEE zuzentarauak indargabetzekoak**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 285. artikuluko 1. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikuluan ⁽¹⁾ araututako prozedura betez,

alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Zenbait aldiz aldatu dira Zuzentarau hauek guztiak: Kontseiluaren 93/23/EEE Zuzentaraua, 1993ko ekainaren 1ekoa, txerri-aziendaren sektorean estatistika-inkestak egiteari buruzkoa ⁽²⁾; Kontseiluaren 93/24/EEE Zuzentaraua, 1993ko ekainaren 1ekoa, behi-aziendaren sektorean estatistika-inkestak egiteari buruzkoa ⁽³⁾; eta Kontseiluaren 93/25/EEE Zuzentaraua, 1993ko ekainaren 1ekoa, ardi- eta ahuntz-azienden sektoreetan estatistika-inkestak egiteari buruzkoa ⁽⁴⁾. Egun, aldaketak egitea eta izapideak erraztea beharrezkoa dela kontuan hartuta, egintza horiek guztiak egintza bakar batek ordeztu behar ditu, argitasuna lortze aldera.

(2) Nekazaritzako politika bateratua behar bezala kudeatuko dela bermatzeko, batik bat idi, txahal, txerri, arkume, antxume eta granjako hegaztien haragi-merkatuei dagokienez, Batzordeak, nahitaez, abeltzaintza-sektorearen eta haragi-ekoizpenaren sektorearen joerari buruzko datuak aldiari aldiari eduki behar ditu.

(3) Kontseiluaren 571/88/EEE Erregelamenduak, 1988ko otsailaren 29koak, nekazaritza-ustiapenen egituraren inguruan Europan inkestak antolatzeari buruzkoak ⁽⁵⁾, Europan inkestak egiteko programa bat ezartzen du, eta hau du xede: nekazaritza-ustiapen egiturari buruzko estatistikak egitea 2007. urtea bitartean.

(4) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1059/2003/EE Erregelamenduari jarraiki —2003ko maiatzaren 26koa, lurralde-unitate estatistikoen nomenklatura komuna (NUTS) ezarri zuen ⁽⁶⁾—, estatu kideek lurralde-unitateetan bereizita Batzordeari bidaltzen dizkieten estatistika guztietan NUTS sailkapena erabili behar dute. Horrenbestez, eskualdeetako estatistikak konparagarriak izateko, lurralde-unitateak aipatutako sailkapen horri jarraiki definitu behar dira.

(5) Estatu kideei zama arintze aldera, eskualdeek eman beharreko datuei buruzko baldintza-kopurua ez da aurreko legeari jarraiki ezarritako baldintza-kopurua baino handiagoa izango (baldin eta bien bitartean ez badira eskualde-maila gehiago eratu), eta eskualdeek eman beharreko zenbait datu hautazkoak izango dira, eskualdeko abere-kopurua ez bada ezarritako kopuru-muga jakin bat bezainbestekoa.

(6) Erregelamendu hau aplikatzea errazagoa izan dadin, ezinbestekoa da estatu kideen eta Batzordearen artean lankidetzat estua izatea; hori lor daiteke, batez ere, Nekazaritza Estatistikako Komite Iraunkorraren laguntzarekin, Kontseiluaren 72/279/EEE Erabakiaren bidez eratu baitzen ⁽¹⁾.

(7) Aplikatu beharreko araubidea arazorik gabe lortzeko —93/23/EEE, 93/24/EEE eta 93/25/EEE Zuzentarauei jarraiki—, Erregelamendu honek zenbait salbuespen xedatu behar ditu; esate baterako, estatu kideak urtebetez salbuesteko eta, ardien kasuan, bi urte artekoa, baldin eta Erregelamendu hau beren estatuetako estatistika-sisteman aplikatzeak egokitze-lan handia eskatzen badie eta arazo praktiko handiak eragiten badizkie.

(8) Erregelamendu honek estatistikak egiteko xedatutako neurriak ezinbestekoak dira Erkidegoak jarduerak egin ditzan. Zuzentarau honen helburua zein den kontuan hartuta —estatu kideetan abeltzaintza-sektoreari eta haragi-ekoizpenari buruzko estatistikak sistematikoki egiteko esparru juridiko komuna ezartzea— estatu kideek ezin dute behar bezala bete helburu hori, eta,

(1) Europako Parlamentuaren 2008ko maiatzaren 20ko Irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2008ko urriaren 27an hartutako Erabakia.

(2) L 149 EO, 1993.6.21ekoa, 1. or.

(3) L 149 EO, 1993.6.21ekoa, 5. or.

(4) L 149 EO, 1993.6.21ekoa, 10. or.

(5) L 56 EO, 1998.3.2koa, 1. or.

(6) L 154 EO, 2003.6.21ekoa, 1. or.

(1) L 179 EO, 1972.8.7koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

beraz, Zuzentarau honen norainokoa eta ondorioak direla eta, hobeto lor daiteke Erkidego-mailan; horrenbestez, Erkidegoak neurriak ezartzeko aukera izango du, Tratatua 5. artikuluan emandako subsidiariotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan aipatutako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, erregelamendu honek ez ditu helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik hartzen.

(9) Kontseiluaren 322/97/EE Erregelamendua da, 1997ko otsailaren 17koa, Erkidegoko estatistikari buruzkoa ⁽²⁾, Erregelamendu honetan ezarritakorako erreferentzia-markoa. Bereziki, Erregelamendu hari jarraiki, estatistikak egitean inpartzialtasun-printzipioak errespetatu behar dira; hau da, objektibotasun eta independentzia zientifikoa, bai eta gardentasuna, fidagarritasuna, egokitasuna, errentagarritasuna eta estatistika-sekretua ere.

(10) Erregelamendu hau betetzeko neurriak onartu behar dira, 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiak, Batzordearen exekuzio-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzekoak, araututakoari jarraiki ⁽³⁾.

(11) Komeni da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea I., II., IV. eta V. eranskinak alda ditzan. Neurri horiek orokorrak eta Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero —funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatuz—, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(12) Horrenbestez, 93/23/EEE, 92/24/EEE eta 93/25/EEE zuzentarauak indargabetu egin behar dira.

(13) Nekazaritzako estatistika Komite iraunkorrari egin zaio kontsulta.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Xedea

Erregelamendu honen xedea da lege-esparru komun bat sortzea, estatu kideetako abeltzaintza-sektoreari eta haragi-ekoizpenari buruzko Erkidegoko estatistika-sistema egiteko. Estatistika hauek sortu nahi dira, berariaz:

- a) behi-, txerri-, ardi- eta ahuntz-aziendei buruzko estatistikak;
- b) hildako behi-, txerri-, ardi- eta ahuntz-aziendei buruzko estatistikak, eta granjako hegaztiei buruzkoak.
- c) idi-, txahal-, txerri-, arkume- eta antxume-haragiaren ekoizpenari buruzko aurreikuspenak.

2. artikulua

Definizioak

Erregelamendu honetan, hitz hauek definizio hau dute:

1) «nekazaritza-ustiapen»: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1166/2008/EE Erregelamenduaren 2. artikuluan, a) idatz-zatian definitutakoaren arabera nekazaritza-ustiapena. Erregelamendu hori 2008ko azaroaren 19koa da, eta nekazaritza-ustiapenen egituraren inguruko inkestei buruzkoa eta nekazaritzako ekoizpen-metodoen inguruko inkestari buruzkoa, eta Kontseiluaren 571/88/EEE Erregelamendua indargabetezkoa da ⁽¹⁾;

2) «zundaketa bidezko inkesta»: 1166/2008/EE Erregelamenduaren 2. artikuluan, c) idatz-zatian definitutakoaren arabera zundaketa bidezko inkesta;

3) «behi»: etxe-aberea, *Bos taurus* eta *Bubalus bubali espezieetakoak*, hibridoak barne, Beefaloea esaterako;

(2) L 52 EO, 1997.2.22koa, 1. or.

(3) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

(1) Ikus Egunkari Ofizial honen 14. orrialdea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

4) «txerri»: etxe-aberea, *Sus scrofa domestica* espeziekoa;

5) «ardi»: etxe-aberea, *Ovis aries* espeziekoa;

6) «ahuntz»: etxe-aberea, *Capra aegagrus hircus* subespeziekoa;

7) «granjako hegaztiak»: etxe-hegaztiak, espezie hauetakoak: *Gallus gallus* (oilaskoak), *Meleagris spp.* (indioilarrak), *Anas spp.* eta *Cairina moschata* (ahateak) eta *Anser anser dom* (antzarak). Espezie hauetako hegaztiak ere sartzen dira: *Coturnix spp.* (galeperrak), *Phasianus spp.* (faisaiak), *Numida meleagris dom* (pintadak), *Columbinae spp.* (usoak) eta *Struthio camelus* (ostrukak). Kanpo geratzen dira, ordea, itxian hazi diren hegaztiak eta ehizarako erabiltzen direnak, haragia ekoizteko ordez.

8) «hiltegi»: giza kontsumorako abereak hil eta prestatzen diren toki edo lantegia, ofizialki erregistratua eta baimendua.

Erregelamendu honetan erabilitako beste definizio batzuk I. eranskinean ezarrita daude.

I. ATALA

ABELTZAINZARI BURUZKO ESTADISTIKAK

3. artikulua

Eremua

1. Estatu kideek behi-, txerri-, ardi- eta ahuntz-azientetako buru-kopuruari buruzko inkestak egingo dituzte, norik bere lurraldean dituen nekazaritza-ustiapenak oinarri hartuta.

2. Zundaketa bidezko inkestak egiten dituzten estatu kideek behar adina nekazaritza-ustiapen hartuko dituzte kontuan; hau da, gutxienez, abere-azienda guztiaren %95 adierazi behar dute, nekazaritza-ustiapenen egiturari buruzko azken inkestan xedatzen denez.

4. artikulua

Maiztasuna eta erreferentzia-aldia

1. Behi-azientari buruzko estatistikak sei hilean behin egingo dira; erreferentzia-aldiari dagokionez, maiatzean edo ekainean egun jakin bat eta azaroan edo abenduan egun jakin bat hartuko dira. 1.500.000 abelburu baino gutxiagoko behi-azienda duten estatu kideen kasuan, estatistika horiek urtean behin soilik egin ditzakete, eta erreferentzia-data azaroko edo abenduko egun jakin bat izango dute.

2. Txerri-azientari buruzko estatistikak sei hilean behin egingo dira; erreferentzia-aldiari dagokionez, maiatzean edo ekainean egun jakin bat eta azaroan edo abenduan egun jakin bat hartuko dira. 3.000.000 abelburu baino gutxiagoko txerri-azienda duten estatu kideen kasuan, estatistika horiek urtean behin soilik egin ditzakete, eta erreferentzia-aldia azaroko edo abenduko egun jakin bat izango dute.

3. Ardi-azientari buruzko estatistikak urtean behin egingo dira, eta erreferentzia-aldia azaroko edo abenduko egun jakin bat izango da, 500.000 abelburuko edo gehiagoko ardi-azienda duten estatu kideen kasuan.

4. Ahuntz-azientari buruzko estatistikak urtean behin egingo dira, eta erreferentzia-aldia azaroko edo abenduko egun jakin bat izango da, 500.000 abelburuko edo gehiagoko ahuntz-azienda duten estatu kideen kasuan.

5. artikulua

Kategoriak

II. eranskinean zerrendatutako kategoria guztietan egingo dira abeltzaintza-sektoreari buruzko inkestak.

6. artikulua

Zehaztasuna

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Zundaketa bidezko inkestak egiten dituzten estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte estatu bakoitzeko inkestatik ateratako emaitzek III. eranskinean xedatutako zehaztasun-baldintzak bete ditzaten.
2. Estatu kide batek administrazio-iturriren bat erabiltzea erabakitzen badu, aurretik jakinaraziko dio Batzordeari, eta erabilitako metodoari buruzko xehetasunak eta administrazio-iturri horretatik bildutako datuen kalitateari buruzko xehetasunak emango dizkio.
3. Estatu kide batek inkesta ez den beste iturriren bat erabiltzea erabakitzen badu, bermatu behar du iturri horietatik bildutako informazioaren kalitatea eta estatistika-inkestak eginda bildutako informazioaren kalitatea, gutxienez, berdinak direla.

7. artikulua

Estatistikak bidaltzeko muga-egunak

1. Estatu kideek behin-behineko abeltzaintza-estatistikak egun hauek baino lehenago bidali behar dizkiote Batzordeari:
 - a) urte bereko irailaren 15a, maiatza/ekaineko estatistikei dagozkien kasuan;
 - b) hurrengo urteko otsailaren 15a, azaroko edo abenduko estatistikei dagozkien kasuan.
2. Estatu kideek behin betiko abeltzaintza-estatistikak egun hauek baino lehenago bidali behar dizkiote Batzordeari:
 - a) urte bereko urriaren 15a, maiatza edo ekaineko estatistikei dagozkien kasuan;
 - b) hurrengo urteko maiatzaren 15a, azaroko edo abenduko estatistikei dagozkien kasuan.

8. artikulua

Eskualdeetako estatistikak

Urriaren edo abenduan egin beharreko estatistikak NUTS 1 eta NUTS 2 lurralde-unitateen arabera bereiziko dira, 1059/2003/EE Erregelamendua definitzen baititu. Salbuespenei dagokienez, Alemaniak eta Erresuma Batuak NUTS 1 lurralde-unitateen arabera soilik eman ahalko dituzte estatistikak. Hautazkoak izango dira abelburu hauek baino gutxiago dituzten lurralde-unitateentzat: 75.000 behi, 150.000 txerri, 100.000 ardi eta 25.000 ahuntz; nolahi ere, ezinbestekoa da lurralde-unitate horiek batera adieraztea estatutuko azientza guztiaren %5 edo gutxiago, dagokion espeziearena.

II. ATALA

KONTSUMORAKO HILDAKOEN ESTATISTIKAK

9. artikulua

Eremua

Estatu kide orok, nor bere lurraldeko hiltegiatan giza kontsumorako ona dela iritzita, behi-, txerri-, ardi- eta ahuntz-azientetatik hildakoen buru-kopuruari eta horiek kanalean izandako pisuari buruzko estatistikak egingo dituzte, bai eta granjako hegaztiei dagozkienak ere. Horrez gain, hiltegietatik kanpo kontsumorako hildakoen gutxi gorabeherakoak ere emango dituzte; horrela, estatistika horiek beren baitan hartuko dituzte norbere lurraldean hildako behi-, txerri-, ardi- eta ahuntz-buru guztiak.

10. artikulua

Maiztasuna eta erreferentzia-aldia

1. Estatu kide orok hilean behin egingo ditu hiltegiatan kontsumorako hildakoei buruzko estatistikak. Erreferentzia-aldia, berriz, hilabete naturala izango da.
2. Estatu kide orok urtean behin egingo ditu hiltegietatik kanpo kontsumorako hildakoei buruzko estatistikak. Erreferentzia-aldia, berriz, urte naturala izango da.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

11. artikulua

Kategoriak

IV. eranskinean zerrendatutako kategoria guztietan egingo dira kontsumorako hildakoei buruzko inkestak.

12. artikulua

Estatistikak bidaltzeko muga-egunak

Estatu kideek hauei buruzko estatistikak bidali behar dizkiote Batzordeari:

- a) kontsumorako hiltegietan hildakoei buruzkoa, erreferentzia-alditik kontatzen hasita, 60 egun baino lehen;
- b) kontsumorako hiltegietatik kanpo hildakoei buruzkoa, hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen.

III. ATALA

HARAGI-EKOIZPENARI BURUZKO AURREIKUSPENAK

13. artikulua

Eremua

Estatu kideek I. eta II. ataletan adierazitako estatistikak erabiliko dituzte, bai eta eskura duten bestelako informazioa ere, behi-, txerri-, ardi- eta ahuntz-azienda hornikuntzari buruzko aurreikuspenak egiteko. Hornikuntza hori nazioko ekoizpen gordin gisa adieraziko da, eta honela lortuko du emaitza: kontsumorako hildako behi-, txerri-, ardi- eta ahuntz-buru kopurua gehi espezie horietako animalia bizien komunitate barruko eta kanpoko merkataritzaren balantzea .

14. artikulua

Maiztasuna eta erreferentzia-aldia

1. Estatu kide bakoitzak urtean bi aldiz egingo ditu behi-aziendari buruzko aurreikuspenak. 1.500.000 abelburu baino gutxiagoko behi-azienda duten estatu kideen kasuan, urtean behin soilik egin ahalko dute aurreikuspena.
2. Estatu kide bakoitzak urtean bi aldiz egingo ditu txerri-aziendari buruzko aurreikuspenak. 3.000.000 abelburu baino gutxiagoko txerri-azienda duten estatu kideen kasuan, urtean behin soilik egin ahalko dute aurreikuspena.
3. 500.000 abelburu baino gehiagoko ardi-azienda duten estatu kideen kasuan, urtean behin egingo dituzte ardi-aziendari buruzko aurreikuspenak.
4. 500.000 abelburu baino gehiagoko ahuntz-azienda duten estatu kideen kasuan, urtean behin egingo dituzte ahuntz-aziendari buruzko aurreikuspenak.
5. Aurreikuspenak egiteko epealdi hauek hartu behar dira kontuan:
 - a) hiru seihilekoa, behi-aziendaren kasuan, eta lau hiruhilekoa txerri-aziendaren kasuan, aurreikuspenak urtean bi aldiz egin behar dituzten estatu kideei dagokienez;
 - b) lau seihilekoa behi-aziendaren kasuan eta sei hiruhilekoa txerri-aziendaren kasuan, aurreikuspena urtean behin egin behar duten estatu kideei dagokienez;
 - c) bi seihilekoa, ardi- eta ahuntz-azienden kasuan.

15. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Kategoriak

Erregelamendu honen V. eranskinean zerrendatutako kategoria guztietan egingo dira aurreikuspenak.

16. artikulua

Bidaltzeko muga-egunak

Estatu kideek Batzordeari haragi-ekoizpenari buruzko aurreikuspenak bidaltzeko muga-egun hauek dituzte:

- a) otsailaren 15a baino lehen, uneko urteko lehen hiruhilekoaren hasieratik hurrengo urteko lehen seihilekoaren amaiera bitarteko epealdiari dagozkion behi-aziendari buruzko aurreikuspenak badira; eta irailaren 15a baino lehen, uneko urteko bigarren seihilekoaren hasieratik hurrengo urteko bigarren seihilekoaren amaiera bitarteko epealdiari dagozkion aurreikuspenak badira. Urtean aurreikuspenak bi aldiz egin behar dituzten estatu kideek betebeharrekoak dira epe horiek;
- b) otsailaren 15a baino lehen, uneko urteko lehen seihilekoaren hasieratik hurrengo urteko bigarren seihilekoaren amaiera bitarteko epealdiari dagozkion behi-aziendari buruzko aurreikuspenak badira. Urtean aurreikuspen bat egin behar duten estatu kideek betebeharreko epea da hori;
- c) otsailaren 15a baino lehen, uneko urteko lehen hiruhilekoaren hasieratik laugarren hiruhilekoaren amaiera bitarteko epealdiari dagozkion txerri-aziendari buruzko aurreikuspenak badira; eta irailaren 15a baino lehen, jarduneko urteko hirugarren hiruhilekoaren hasieratik hurrengo urteko bigarren hiruhilekoaren amaiera bitarteko epealdiari dagozkion aurreikuspenak badira. Urtean aurreikuspenak bi aldiz egin behar dituzten estatu kideek bete beharrekoak dira epe horiek;
- d) otsailaren 15a baino lehen, uneko urteko lehen hiruhilekoaren hasieratik hurrengo urteko bigarren hiruhilekoaren amaiera bitarteko epealdiari dagozkion txerri-aziendari buruzko aurreikuspenak badira. Urtean aurreikuspen bat egin behar duten estatu kideek betebeharreko epea da hori;
- e) otsailaren 15a baino lehen, uneko urteko lehen seihilekoaren hasieratik hurrengo urteko bigarren seihilekoaren amaiera bitarteko epealdiari dagozkion ardi- eta ahuntz-aziendei buruzko aurreikuspenak badira.

IV. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

17. artikulua

Kalitateari buruzko ebaluazioa eta txostenak

1. Erregelamendu honetan xedatutakoa aintzat hartuta, eman beharreko datuei kalitateari buruzko ebaluazioaren alderdi hauek aplikatu zaizkie:

- a) «egokitasuna»: erabiltzaileek une honetan dituzten beharrak eta izan ditzaketenak zenbateraino adierazten duten estatistikek esan nahi du;
- b) «zehaztasuna»: estimazioak eta ezagutzen ez diren benetako balioak zenbateraino datozen bat esan nahi du;
- c) «aukera»: informazioa izatetik deskribatutako gertaera edo fenomenora bitartean igarotako denbora-tartea esan nahi du;
- d) «puntueltasuna»: datuak argitaratutako egunetik datu horiek eman beharko liratekeen egunera arte igarotako denbora-tarteari egiten dio erreferentzia;
- e) «eskuragarritasuna» eta «argitasuna»: erabiltzaileek datuak eskuratu, erabili eta interpretatu ahal izateko, dituzten baldintzak eta datu horiek jarrita dauden modua esan nahi dute;
- f) «konparagarritasuna»: zenbait geografia zonaldean, sektore-alor desberdinetan edota denboraren joanean egindako estatistikak beren artean konparatzen direnean, aplikatutako estatistika-kontzeptuetan, neurketak egiteko erabilitako bitartekoetan eta prozeduretan dauden desberdintasunak zenbateraino diren esan nahi du; eta
- g) «koherentzia»: datuak zenbait modutan eta zenbait erabileretarako fidagarritasunez konbinatu ahal izateko datu horiek egokiak diren esan nahi du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Hiru urtean behin, eta lehendabizikoz 2011. urteko uztailaren 1a baino lehen, eman dituzten datuen kalitateari buruzko txostena aurkeztuko diote estatu kideek Batzordeari (Eurostat).

3. Kalitateari buruzko txostenetan honako hauek deskribatu behar dira:

- a) Erregelamendu hau aplikatu zaien inkesten antolaketa eta aplikatutako metodologia;
- b) Erregelamendu honetan adierazitako laginketa bidezko inkestekin lortutako zehaztasun-mailak;
- c) inkestak ez diren bestelako iturrien kalitatea; eta
- d) Erregelamendu honetan xedatutako aurreikuspenen kalitatea.

4. Estatu kideek jakinarazi egin behar diote Batzordeari metodologiaren inguruan egindako aldaketa oro edo estatistiketan eragin handia izan ditzakeen bestelako aldaketa oro; aldaketa hori indarrean sartu eta, gehienez, hiru hileko epean jakinaraziko diote.

5. Kontuan hartu behar da kostu eta zama osagarriak zentzuzko muga baten barrukoak izan behar dutelako printzipioa.

18. artikulua

Aplikazio-neurriak

1. Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldarazteko neurriak —zenbaitetan, osatzeko ere bai—, I., II., IV. eta V. eranskinetako aldaketei buruzkoak, 19. artikuluan, 2. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera ezarriko dira.

2. Kontuan hartu behar dira, batetik, printzipio hau: aldaketek eragindako etekinek konpentsatu egin behar dituzte aldaketek eragindako gastuak. Eta bestetik, printzipio hau: kostu eta zama osagarriak zentzuz mugatu behar dira.

19. artikulua

Komitearen prozedura

1. Nekazaritza-estatistikako Komite iraunkorrak aholkatuko du Batzordea. 2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren 5 *bis* artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, eta haren 8. artikuluan xedatutakoa bete egingo da.

20. artikulua

Salbuespena

1. Erregelamendu hau beren estatu-tako estatistika-sisteman aplikatzeak egokitze-lan handia eskatzen badie eta arazo praktikoa handiak eragiten badizkie estatu kideei, Batzordeak aplikatze-tik salbuetsi ditzake 2010. urteko urtarrilaren 1a arte eta, ardiei eta ahuntzei buruzko estatistiken kasuan, 2011. urteko urtarrilaren 1a arte.

2. Halakorik gertatuz gero, estatu kideek Batzordeari jakinaraziko diote, 2009ko martxoaren 21a baino lehen.

21. artikulua

Indargabetzea

1. Artikulu honen 3. paragrafoa gorabehera, 93/23/EEE, 93/24/EEE eta 93/25/EEE Zuzentaruak indargabetu egiten dira.

2. Indargabetutako Zuzentaru-ekin erreferentziei dagokienez, Erregelamendu honen erreferentziatza hartuko dira.

3. 22. artikuluan, 2. paragrafoan xedatutakoa gorabehera, 20. artikulua araberako salbuespena eman zaion estatu kideak aplikatu egingo ditu, ordura arte bezala eta salbuespen-aldiak iraun bitartean, 93/23/EEE, 93/24/EEE eta 93/25/EEE Zuzentaru-tako xedapenak.

22. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Indarrean sartzea

Araudi hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeit hamar eguneko epean jarriko da indarrean.

Erregelamendu hau 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera izango da aplikagarria.

Erregelamendu hau bete beharrekoa izango da bere elementu guztietan, eta zuzenean aplikagarria estatu kide bakoitzean.

Estrasburgon emana, 2008ko azaroaren 19an.

Europako Parlamentuaren izenean Presidentea H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean Presidentea J.-P. JOUYET

ANEXO I

DEFINICIONES

A los efectos del presente Reglamento, se entenderá por:

1. Categorías de bovinos

	Anexo II	Anexos IV y V
Terneros		Bovinos de edad igual o inferior a ocho meses
Bovinos jóvenes		Bovinos de más de ocho y menos de doce meses
Terneros y bovinos jóvenes de abasto	Terneros y bovinos jóvenes de menos de doce meses de edad destinados a ser sacrificados	
Toros		Machos no castrados de especie bovina, no incluidos en la definición de ternero y bovinos jóvenes
Bueyes		Machos castrados de especie bovina, no incluidos en la definición de ternero y bovinos jóvenes
Novillas	Hembras de especie bovina que todavía no hayan parido, no incluidas en la definición de terneros y bovinos jóvenes	Hembras de especie bovina que todavía no hayan parido, no incluidas en la definición de ternero y bovinos jóvenes
Novillas de abasto	Novillas criadas para la producción de carne	
Otras novillas	Novillas criadas para la reproducción y destinadas a reemplazar a las vacas lecheras o similares	
Vacas	Hembras de especie bovina que hayan parido (incluidas, en su caso, las menores de dos años)	Hembras de especie bovina que hayan parido
Vacas lecheras	Vacas destinadas exclusiva o principalmente a la producción de leche para el consumo humano o a su transformación en productos lácteos, incluidas las vacas de reposición destinadas al sacrificio (sean cebadas o no entre su última lactancia y el sacrificio)	
Otras vacas	Vacas distintas de las lecheras, incluidas, en su caso, las vacas de labor	

2. Categorías de ovinos

Ovejas y corderas cubiertas: hembras de la especie ovina que hayan parido al menos una vez, así como aquellas que hayan sido cubiertas por primera vez.

Ovejas lecheras: ovejas criadas principal o exclusivamente para la producción de leche destinada al consumo humano o a la fabricación de productos lácteos, incluidas las ovejas lecheras de desecho (sean o no cebadas entre la última lactación y el sacrificio).

Otras ovejas: ovejas distintas a las ovejas lecheras.

Corderos: animales jóvenes de la especie ovina, machos o hembras, de hasta 12 meses de edad;

3. «Canal»
- a) en el caso del ganado bovino, el cuerpo entero del animal sacrificado tal como se presenta después de las operaciones de desangrado, eviscerado y desollado, sin cabeza (separada de la canal por la articulación atloide-occipital), sin patas (cortadas por las articulaciones carpometacarpianas o tarsometatarsianas); sin los órganos contenidos en las cavidades torácicas y abdominales con o sin los riñones, la grasa de riñonada y la grasa pélvica, sin los órganos sexuales ni los músculos unidos, y sin la ubre ni la grasa mamaria;
 - b) en el caso del ganado porcino, el cuerpo del animal sacrificado, desangrado y eviscerado, entero o partido longitudinalmente por la mitad, sin la lengua, las cerdas, las manos, los órganos sexuales, la manteca, los riñones y el diafragma;
 - c) en el caso del ganado ovino y caprino, el cuerpo entero del animal sacrificado tal como se presenta después de las operaciones de desangrado, eviscerado y desollado, sin cabeza (separada de la canal por la articulación atloide-occipital), patas (seccionadas a nivel de las articulaciones carpometacarpianas o tarsometatarsianas), ni rabo (seccionado entre la sexta y séptima vértebra caudal); sin los órganos contenidos en las cavidades torácica y abdominal (excepto los riñones y la grasa de riñonada) y sin la ubre ni los órganos sexuales; los riñones y la grasa de riñonada forman parte de la canal;
 - d) en el caso de las aves de corral, el animal desplumado y eviscerado, sin cabeza ni patas y sin cuello, corazón, hígado ni molleja, conocido como «pollo al 65 %», o presentado de otro modo.
4. «Peso en canal»: el peso de la canal en frío, que, en el caso del ganado porcino, en particular, se obtiene sustrayendo el 2 % del peso registrado en caliente 45 minutos como máximo después de desangrado el animal, y en el caso del ganado bovino, sustrayendo el 2 % del peso registrado en caliente 60 minutos como máximo después de desangrado el animal.
-

ANEXO II

CATEGORÍAS DE LAS ESTADÍSTICAS GANADERAS

Bovino

- bovinos de menos de un año:
 - terneros o bovinos jóvenes de abasto
 - los demás:
 - machos
 - hembras
- bovinos de entre uno y dos años (con la excepción de las hembras que hayan parido):
 - machos
 - hembras (novillas; animales que no hayan parido):
 - animales de abasto
 - las demás
- bovinos de dos años o más:
 - machos
 - hembras:
 - novillas:
 - novillas de abasto
 - las demás
 - vacas (bovinos que hayan parido incluidos los que tengan menos de dos años):
 - vacas lecheras
 - las demás
- búfalos:
 - hembras reproductoras
 - los demás

Porcino

- lechones con un peso vivo inferior a 20 kg
- cerdos con un peso vivo superior o igual a 20 kg pero inferior a 50 kg
- cerdos de engorde, incluidos los verracos de desecho y las cerdas de desecho, con un peso en vivo:
 - superior o igual a 50 kg pero inferior a 80 kg
 - superior o igual a 80 kg pero inferior a 110 kg
 - de 110 kg o más
- cerdos reproductores con un peso vivo de 50 kg o más:
 - verracos
 - cerdas cubiertas, de las cuales:
 - cerdas cubiertas por primera vez

- otras cerdas, de las cuales:
 - cerdas jóvenes que aún no hayan sido cubiertas

Ovinos

- ovejas y corderas cubiertas:
 - ovejas de ordeño y corderas cubiertas para ordeño
 - otras ovejas y corderas cubiertas
- otros ovinos

Caprinos

- cabras cubiertas y cabras que ya han parido:
 - cabras que ya han parido
 - cabras cubiertas por primera vez
 - otros caprinos.
-

ANEXO III

REQUISITOS DE PRECISIÓN

En el caso de las encuestas sobre la cabaña ganadera, los errores de sondeo de cada Estado miembro no superarán (con un intervalo de confianza del 68 %) los siguientes porcentajes:

- a) el 1 % del número total de ganado bovino (el 5 % si la cabaña bovina cuenta con menos de 1 000 000 de cabezas de ganado);
 - b) el 1,5 % del número total de vacas (el 5 % si la cabaña de vacas cuenta con menos de 500 000 cabezas de ganado);
 - c) el 2 % del número total de ganado porcino (el 5 % si la cabaña porcina cuenta con menos de 1 000 000 de cabezas de ganado);
 - d) el 2 % del número total de ganado ovino y caprino (el 5 % si la cabaña ovina y caprina cuenta con menos de 1 000 000 de cabezas de ganado).
-

ANEXO IV

CATEGORÍAS DE LAS ESTADÍSTICAS DE SACRIFICIOS

Bovino

- terneros
- bovinos jóvenes
- novillas
- vacas
- toros
- bueyes

Porcino

no se desglosan

Ovinos

- corderos
- otros

Caprinos

no se desglosan

Aves de corral

- pollos
 - pavos
 - patos
 - otros.
-

ANEXO V

CATEGORÍAS DE LAS PREVISIONES DE PRODUCCIÓN DE CARNE**Bovino**

- terneros y bovinos jóvenes
- novillas
- vacas
- toros y bueyes

Porcino

no se desglosan

Ovinos

no se desglosan

Caprinos

no se desglosan.
